

2013 Ur-esferako Kooperazioaren Nazioarteko Urtea

Nazio Batuen Osoko Bilkurak 2013. urtea Ur-esferako Kooperazioaren Nazioarteko Urtea deklaratu zuen, herrien arteko kooperazioa bultzatu eta herri horiek uraren kudeaketari buruzko akordioetara iritsi daitezzen. Helburua munduko uraren hornikuntzaren egoera hobetzea eta ingurumenari zein hiritarrei mesedea egitea delarik.

Nazioarteko Urte honen **helburuak** bi dira:

- **Uraren kudeaketak**, eskaera handiago baten ondorioz, **hurrengo hamarkadetarako dituen erronkak gogoraraztea**. Urarentzako baldintza minimo batzuk izan gabe, ez dira posible izango garapen jasagarria, ingurumenaren babesa, edo gizakientzako bizi kalitaterako baldintza minimo batzuk.
- **Kooperazio handiago batek dituen onuren inguruko sentsibilizazioa**. Historiak erakusten digu akordio-en bidezko gatazken konponketa baketsuek inplikaturako guztientzako hobekuntzak ekarri dituztela: ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari dagozkien hobekuntzak.

Irina Bokova, UNESCOko zuzendari nagusiak, esaten duenez ura gure garaiko erronka nagusien artean (energia, elikagaiak, osasuna, bakea eta segurtasuna) izendatzaile komun gisa agertzen da. Uraren kudeaketak lehorteak edo uholdeak bezalako hondamendiak murriztu ditzake.

Mugakideak diren ibai arro eta ubideek Lurraren azalaren ia erdia suposatzen dutela jakinik, uraren inguruko kooperazioa bakearentzako ezinbestekoa dela dirudi.

Gaur egungo ur kontsumorako joera mantentzen bada, hiru pertsonetatik bik estres hidrikoa jasango dute 2025ean (denbora tarte batean ur eskaerak erabilgarri dagoen ur kopurua gainditzen duenean, edo uraren kalitate eskasak bere erabilera mugatzen duenean ema-



ten da). Nazio Batuak kezkatuta daude uraren kudeaketan ematen diren galeregatik: munduan hornitzen den uraren % 70a nekazaritzan erabiltzen da PNUMAren arabera (Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren arabera) eta ureztatzeko erabiltzen den uraren %60 landare-ra heldu baino lehen galtzen da UNESCOren ustez.

Ura eskuratzeko aukeren ezberdintasuna

NBE-aren arabera:

- Herrialde aberatsek, batzbestez hamabi aldiz ur gehiago kontsumitzen dute txiroek baino.
- 783 miloi pertsonak ez dute eskura edateko urik.
- Lurreko sei biztanletik batek ez du ur garbirik.
- Lurreko bost biztanletik batek ez du komun simpleena ere.
- Zortzi pertsonetatik batek probabilidade handiz gaixoaraziko duen ura edaten du.
- Astero, bost urtetik beherako 27.000 haur hiltzen dira kontaminatutako ura edateagatik, higiene edo saneamendu faltagatik.
- Saneamendu faltak gaixotasuna sortzen du, batez ere beherakoa. Beherakoa haur heriotzen bigarren arrazoia izanik.

NATURGUNEA

Gaztelekua (Aranetxea).

Kale Nagusia 2 bis.

Jendaurreko ordutegia:

astearteak eta ostegunak: 11:30 - 13:30

Tel.: 948 244 946

medioambiente@aranguren.es



Hurrento jarduerak

Aranguren Ibarreko denbora-bankua: informazio bilera

Denbora-banku bat dirurik gabe funtzionatzen duen ondasun eta zerbitzuen elkartrukerako sarea da (hizkuntzak, konponketak, brikolajea, etxeko lanak, informatika, ikastaroak, lantegiak, masajeak, etab.). Ibarrean denbora-banku bat sustatzeko helburuarekin, **apirilaren 11an, 18:30ean**, bigarren informazio bilera bat egonen da Mutiloako K u l t u r



ren 11an, 18:30ean, bigarren informazio bilera bat egonen da Mutiloako K u l t u r

Etxean. Eman izena **apirilaren 8ra arte** 012ra deituz edo Naturgunearra posta bat idatziz.

Produktu naturalak egiteko eta senda-belarrei buruzko lantegia

Gure ibarreko senda-belarrak ezagutzen ikasi eta horiekin produktu naturalak egiten ikasteko.

Apirilak 14 eta 21, 9:30etik 13:30era (landare bilketa) eta 16:00etik 20:00etara (erremedioak egitea), Taxoaren eta Arangurenen, hurrenez hurren.

Emalea: Silvia Akerreta, etnobotanika doktorea eta ingurumen hezkuntzako begiralea.

Matrikula: 15 € erroldatuak, 30 € erroldatu gabeak.

Izen emateak apirilaren 6ra arte, 012ra deituz.

Mutiloako Zakatina, ekainak 2, 12:00etatik 14:00etara, Mutiloa plazan.

Dirurik gabeko azoka. Haur eta helduentzako doako tailerrak barne.

Hurbildu zaitetz eta ekarri dagoeneko behar ez duzun **baina egoera onean dagoen** guzti hori. Zihurrenik, zuk nahi duzun zerbait ere topatuko duzu.

Antolatzen duten boluntarioei lagundu nahi badiezu, deitu Milari (665862118).

Nafarroako 9. aste ekologikoa, apirilaren 15etik 21era.

Izen emateak apirilak 8ra arte 012ra deituz.

Naturguneak Nafarroako Nekazaritza Ekologikoko Produkzioaren Kontseiluarekin batera Ibarrean jarduera hauek antolatuz, elikagai ekologikoen produkzio eta kontsumoa sustatzen du.

Okindegia eta gozogintza ekologikorako lantegiak.

Ikasi ogia, madalenak, eta te-pastak osagai ekologikoekin egiten.

Labiano, apirilak 18.

Ezaugarri berdinetako bi lantegi eskaintzen dira bi ordutegi ezberdinetan: I. Lantegia, 9:30etik 13:30era eta II. Lantegia, 16:00etik 20:00era.

Emaleak: Inés Muñoz eta Arkaitz León. Lakabeko okindegian hasi ziren eta 2008tik daramate tailerrak ematen.

Izen emateak lantegi bakoitzeko: 15€ erroldatuak, 30€ erroldatu gabeak.



Espazio txikietako nekazaritza ekologikorako ikastaroa

Terraza, balkoi eta familia-baratza txikietan ekologikoki landatzen ikasteko.

Mutiloako Kultur Etxea, apirilak 16, 23, 25 eta 30 eta maiatzak 7 eta 9, 16:30etik 19:30era.

Emalea: Juan Manuel Esparza, Masterra Nekazaritza Ekologikoan.

Izen ematea: 30 € erroldatuak, 60 € erroldatu gabeak.



2013ko Ingurumenaren astea, maiatzak 20tik 26ra.



Ikastaro eta lantegietarako izen emateak, maiatzaren 11ra arte, 012ra deituz.

Maiatzak 20, ASTELEHENA. Mutiloako Kultur Etxea. Feng Shui hastapenen tailerra

Feng-Shui: haizea eta ura esan nahi du. Antzinako diseinu artea da, pertsonen eta beren ingurunearen arteko oreka mantendu nahi duena. Etxean Feng Shuia aplikatzen ikasteko lantegi praktikoa.

Orduetgia: 16:00etatik 20:00etara.

Emalea: Conchi Linares, antzinako medikuntza titulatu eta Feng Shui, radioestesia eta geonergia ikasketaduna.

Matrikula: 10 € errolatuak eta 20 € errolatu gabek.

Maiatzak 21, ASTEARTEA, San Pedro ikastetxean, Mutiloan.

Haurrentzako elikadura osasuntsurako lantegia.

Kaltegarriak izan daitezkeen elikagaiak, osasuntsu hazitzeko beharrak, barazkiak eta gosari osasuntsuak jan ditzaten nola sustatu. Osagai ekologikoz eginiko plater eta snack batzuk prestatzea eta dastatzea.

17:30etik 20:30era

Emalea: Tina Asensio, sukaldaritza bio-energetikoaren irakaslea eta Euskal Eskola

Makrobiotikoaren zuzendaria.

Matrikula: 7 € errolatuak, 15 € errolatu gabek.

Hautzaindegi Zerbitzua eskatu daiteke

Maiatzak 22, ASTEAZKENA, Mutiloa.

Haurrentzako tailerra: maskotak zaintzen ikasteko

2002 eta 2004 urte bitarteko haurrak.

17:30etik 19:00etara, Animaliak Babesteko Elkartearen, Mutiloan. Doako jarduera, aurretik izena emanda.

Maiatzak 23, OSTEGUNA, Labianoko elkartean

Sukaldaritza tailerra, Nafarroako produktu ekologiko eta ekonomikoekin.

Garaiko eta bertako produktu ekologikoekin menu osasuntsu eta nutritiboak sukaldatzen ikasteko.

Maiatzak 23 eta 24, 18:00etatik 20:30era.

Emalea: Jose Luis Aranguren, sukaldaria.

Matrikula: 15 € errolatuak eta 25 € errolatu gabek.

Maiatzak 24, OSTIRALA, Labianoko elkartea

Sukaldaritza Lantegia Nafarroako produktu ekologiko eta ekonomikoekin (jarraipena)

18:00etatik 20:30era.

Maiatzak 25, LARUNBATA, Lakidain eta Taxoare

Osasun Lantegia Naturan: Chi-kung

Chi-kung mugimendu leunen, arnasketa eta kontzentrazio ariketen multzo bat da. Horiek kanpoan eginda, ematen duten ongizate fisiko eta mentalaren sententzioa handitzen dute.

10:00etatik 12:30era. Lakidaingo aparkalekuan.

Emalea: Jon Bru, Espainiako Federazioko Chi Kung irakaslea.

Matrikula: 6 € errolatuak 12 € errolatu gabek

Ibarreko tximeletak aurkitu eta begiratze- ra joateko familia irteera

Gidatutako ibilbidea. 17:00etan Taxoaren.

Doako jarduera, aurretik izena emanda. Laguntzailea: Zerynthia elkartea

Maiatzak 26, IGANDEA, Aranguren

11:30ean Ingurumen jolasak familian.

13:00etan Ibarrean Ingurumenaren alde lan egiten duten pertsonen aldeko homenaldia. 13:15ean Bokata da ekologikoa.

Tiketak: 2 € helduak, 1 € haurrak. Izen emateak, maiatzaren 20tik 22ra, 11:30etik 14:00etara Naturgunean eta 19:00etatik 21:00etara, Aranetxean.

Lehiaketak

2013ko Aranguren Ibarreko ingurumen argazkigintza lehiaketa

Buletin honetan, lehiaketa honen beste edizio baten deialdia iragartzen dugu. Aurten lema honakoa izango da: **Ibarreko Txokoak**. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 23tik urriaren 21era bitartean irekita egonen da. Eskatu itzazu oinarriak udaletxean edo jeitsi www.aranguren.es-en.



*Etorni bizikletaz eta lortu zigilua
zozketan parte hartzeko.*

Atera bizikleta kalera

Gogorazten dizugu Udaletxera, Kiroldegira, Kultur Etxera, Aranetxeara, San Pedro ikastetxera eta Ttipi Ttapara bizikletan zoazen bakoitzean, zure txartelan zigilua jartzen jarraitu dezakezula. Urte bukaeran ekartzen dituzuen txartelen artean, 3 bizikleta tolesgarri zozketatuko dira, helduentzako bat eta haurrentzako bi. Oinarriak udaleko web orrian ikusi ditzakezu.

Ezagutu ibarra



Zer den edo argazkia nondik aterata dagoen baldin badakizu, idatzi posta elektronikoa bat edo bidali gutuna Naturguneara. Ekainaren 15era arte iristen diren erantzun on guztien artean, xaboi naturalen sorta bat zozketatuko da.

Inork ere ez du asmatu aurreko buletineko argazkia nondik aterata zegoen. Taxoareko konpostaje kolektiborako gunetik hartu zen, eta bertatik Belaran mugapena, Zolina eta Taxoareren arteko muga eta Fraileen txokoa ikusten dira.

Martxan dauden kanpainak

Elkartasunezko tapoien birziklatzeak: utz itzazu Kiroldegiko Tabernan, Kultur Etxean eta Kotsultategian

2012an AEFAT kanpainara bideratu genituen, ataxia-telangiectasia gaixotasunari buruzko ikerketak finantzatzeko. Erakunde honek jakinarazi digu diru bilketarako kanpaina ezberdinen bidez, batez ere tapoien birziklatzearen bidez, bildutakoak 2013rako ikerketa beka baten deialdia egitea posible egin duela. Informazio gehiagorako: <http://www.aefat.es/>

2013an biltzen ditugun tapoak garuneko paralisia duen Barañaingo mutil baten, Pabloren, tratamendu eta errehabilitazio gastuak ordaintzeko bideratuko dira.



Etxean konpostatzea. Iruñerriko Mankomunitatea

Kanpaina hau urtero antolatzen da, udaberri hasieran. Parte hartzen dutenei beren etxean konposta egiteko behar duten materiala eta formazioa eskaintzen zaie.

Informazio gehiago eta izen-emateak ondorengo web orrian <http://www.mcp.es/residuos/campanas-de-compostaje-domestico> edo 948 423242 telefonora deituz

Hondakinei buruzko berezia: Arropa erabilia

Zer gertatzen da dagoeneko erabiltzen ez dugun arropa guztiarekin?

Nafarroan Emauseko Trapu-biltzaileek, garbiguneetatik, etxeetatik, norbanakoen ekarpenetatik, zenbait mankomunitatetan jarritako edukiontzietatik eta portaletan egiten dituzten bilketetatik datozen 3.000 kg arropa erabilia jasotzen dute egunean.

Irabazi asmorik gabeko elkarte hau, Nafarroan arropa erabilia kudeatzeaz arduratzen direnetako bat da.

Emausera iristen den arropa guztia aukeratu eta sailkatu egiten da. Ongi badago, Emausek Nafarroan dituen azoka edo dendetan saltzen da edo handizkako merkataritzan, kiloka.

Ez baldin badago erabilia izateko moduan, kremailera eta botoiak kendu eta **garbitzeko trapuetan** edo "**borran**" bilakatzen dira, ibilgailuen eserlekuetan eta bestelako betetze-materialetan erabiltzen den hari eta artile zuntzez egindako materiala.

Badago **zabortegian** bukatzen duena ere, zikina dagoelako, hezea edo hondatua.

Gurutze Gorriak eta Cáritasek ere jasotzen du arropa erabilia. Elkarte hauetako boluntarioek egoera onean dagoen arropa banaketarako prestatzen dute eta balio ez duena Emauseko Trapu-biltzaileei ematen diote.

NON UTZI DEZAKEZU DAGOENENKO NAHI EZ DUZUN ERABILITAKO ARROPA?

1. Enteratu zaitez Ibarreko Zakatina noiz den eta hara eraman.
2. Gurutze Gorria: arropa beren egoitzan jasotzen dute, Tejeria kaleko 27.ean, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta asteazkenetan, 16:30etik 18:30era.



3. Eraman Mutiloako San Pedro elizara.
4. Iruñerriko Mankomunitatearekin, Emauseko Trapu-biltzaileen bidez etxean jasotzen dute ondorengo telefonora deituz: 948 302898.
5. Eraman garbigune batera
Modu honetan, behar duen jendeari lagunduaz, gizarte lana egingo duzu, eta zabortegian bukatzea ekiditen baduzu, baita ingurumenaren aldeko lana ere.